

**XX. MENDEKO EUSKAL ZIZELKARIAK**

*“Izaeraren sentimendu tragikoak gizaki guztiak finkatzen gaitu eta nolabait salbamen espiritualerako biru bide hauetako batera burbiltzen gaitu, alegia, filosofiara, erlijiora eta artera. Hauek, esan dezakegu, gizakiaren Jainkoarekiko barremanen biru diziplina direla, gure bihotzean elkarlotu eta nabasten direnak, baina hala ere teknikoki desberdinak eta askeak direnak”.*

*“Artegintzaren lehenengo aro honetan arte garaikidearen biru oinarri edo hastapenek balio dute: 1) Artea adierazpena, komunikazioa da, 2) Artea zero batetik abiatzen da, ezerez batetik, garai bakoitzean bere adierazpen mintzaera erabakitzeko, eta 3) Artearen errealitatea naturaren errealitatearekin bat dator”.*

Hala dio Jorge Oteizak *“Quousque tandem”*<sup>1</sup> euskal arte berriaren sorrera eragingo zuen liburuan.

*“Harrigarria da historialari batek, Euskal Herriko artea aztertzeari ekiten dionean, artista euskaldunak zenbatzeko unean ikusten duen jarraikitasun eza bitxia... Horrelakoxea da egoera. Gure unibertsitateetako ikasleek lau mendetako atzera saltoa eman behar dute (Antxietatik Mogrobejora, Oteizatik Txillidara) plastika hispaniarraren historiari buruzko es-*

<sup>1</sup> JORGE OTEIZA, “Quousque tandem...!” 5gn argitalpena 30 urtetara: Pamiela 1993. [1. Argitalpena: Añamendi, 1963]

*kuliburuetan eskultore euskaldunen izenak aurkitzeko*". Hala dio Juan Plazaola, *arte historialariak*<sup>2</sup>.

Gero, haren hausnarketa Mendebaldeko plastikaren (pintura eta eskultura) historian, irudiari emandako lehentasunaren eta ikur nahiz sinboloari eman zaion lehentasunaren arteko alternantziari buruz doa, esanez:

*"Euskaldunak arte plastikoetarako sentiberatasunik ez duela adierazi dute batzuek, baina, zuzenago izateko, euskaldunaren sentiberatasun falta hori plastika figuratibo, mamitsu eta ukigarriari dagokiola esan beharko litzateke."*

Baina hortaz utz ditzagun filosofoak, humanistak eta historialariak beren hausnarketa eta eztabaidetan. Guri orain interesatzen zaiguna, eta aurkeztu nahi duguna zera da: XX. mendean Euskal Herrian eskultore belaunaldi bat sortu zela mundu mailako garrantzia izan duena eta Eskultura Garaikideak historian izango duen atalburuan letra handi eta lodiz idatzita agertuko direla belaunaldi hori osatzen duten eskultoreak eta hauen leinuak.


Eragile soziologiko eta historikoak barne, zalantzarik gabe, jatorri edo iturri nabarmen bat aurkitu behar zaio: Jorge Oteiza, euskal eskultura garaikidearen aita zorrotz bezain maitagarria. Haren eginkizun pedagogikoak eta estetika alorrean eta artearen teoria alorrean egindako hausnarketak eta bultzadak eragin zuten zenbait zizelkari belaunaldiren sormena. Gogora ditzagun Euskal zizelkaritza eskola, Gaur taldea (1966), Debako Eskola (1969), eta abar.

Hara, bada, talde mundial honen lan batzuekin osatu dugun erakustaldia.

*Juan Mari Arrizabalaga*

---

<sup>2</sup> JUAN PLAZAOLA. *XX.mendeko eskultore euskaldunak*, Euskonews & Media 89.zbk (2000 / 7-28 / 9-8)



1.- **JORGE OTEIZA (ORIO, 1908 - DONOSTIA, 2003).** –**IKER-KONPOSAKETA.**

*XX. mendeko artista gailenetakoa dugu Oteiza, zizelkaria, filosofoa, idazlea, poeta eta abar. Talentu handikoa. 50eko urteetako abangoardiaren funtsezko eragile, bark idatzitako Quousque tandem liburua eta baren lan eta asaldura kulturalak bultzagarri izan ziren euskal gazteria osatzen zuten bainbatentzat, eskultore balaunaldi bati gutxienez bidea irekiz. Bolumenarekin eta espazioarekin izaten zuen borroka berezia bukatutzat eman zuen, besteak beste, sail hauekin: Esferaren desokupazioa (1957-1958) eta Kutxa metafisikoak (1958).*




2.- **JORGE OTEIZA. —ARANTZAZUKO APOSTOLUEN FRISOA (1968)**

*Oteizaren ideiak jatorriz bizi-indarra dute, eta kokapenez sozialak eta politikoak dira. Premisa horien arabera, Arantzasuko guztia euskal kulturaren kodeetan oinarritzen da. Oteizak nabita egin zuen frisoaren zabalera traineruaren luzerarena izatea eta euskal frontoiaren aurreko paretaren neurrikoa. Oteizak apostoluetan bere kode formalekin eratu ditu: bolumena, butsumeak, arrazaren ñabardurak, eta abar. Zizelkariak dioenez: “Jainkoaz bete behar denak bere burua bustu behar du”.*



**3.- JORGE OTEIZA. —ARANTZAZUKO PIETATEA. (1968)**

*Arantzazuko fatxadaren goi aldean dagoen irudia da. Andre Maria ere -Apostoluak bezala- barrutik hustuta dago. Baina hemen hutsunea bular mailan dago, seme baten galerak bibotza hustu balio bezala. Bere adixkide Txabi Etxebarrietaren heriotzaren berri jakinda, bere erabakia: "Azaroaren 1ean Arantzazura igotzerakoan erabakita neukan: hormaren goi aldean Semea eraila jarriko det Amaren oinetan; eta hau zerura begira, garrasika, mintzoan, ez dakit...".*




4.- JORGE OTEIZA. —PIETATEA.

*Pietatea saiakera askoren eta kontzeptu aldagai askoren iturri biburtu da. Hasieran zeukan eduki erlijioso butsa gizatasunaren adierazpen bilakatu da, amatasunaren sufrimendua eta gizonaren ideia politikoak elkartzearen ondorioz.*



5.- JORGE OTEIZA. —A. DONOSTIRI MONUMENTUA (1959). AGIÑA.


*Paisaia zirkular eta magiko batean kokatutako monumentua, lurra eta borobiltasunarekin flotazioa, mendien zirkulua, ilbetea, kromlechak... Modernitatetik mitoen munduarekin elkartasuna sortzen duen eskultura-estatua... Gurtza erlijiosorako kapera-arkitektura eta barrespila arkeologikoa batzen diren gune horretan, artista-magoak Jainkoa barrapatzeko tranpa bat eraikitzen du.*




6.- JORGE OTEIZA. –ERAIKIN HUTSA. DONOSTIA (1957/2002).

*“Gustatzen zait bere estruktura, mugimendua, erritmoa dauka, bizitza. Nondik begiratzen diozunaren arabera forma berri bat hartzen du, aldatu, mugitu, moldatu egiten da. Askotan galdetu det Oteizak zergatik izen hori jarri zion. Neretzat behintzat justu alderantzizkoa irudikatzen du, zaindu, bildu, indarrez bete, gogoa altxatzen dit eta bidenabar libre sentiarazten nau, nere buruarekin barremanetan jartzen nau eta meditazio lasai eta bare baten murgiltzen nau”. Bisitari baten hausnarketa.*





7.- **JORGE OTEIZA.**  
*Bere eskuak eskultura bati begira.*




**8.- EDUARDO CHILLIDA (DONOSTIA, 1924 - DONOSTIA, 2002). IKER-KONPOSAKETA.**

*Jorge Oteizarekin batera, XX. mendeko euskal eskultore gailenena da. Haren lana oso heterogeneoa da, askotariko materialekin egina: burdina, altzairua, lurra, alabastroa, zura, barria, granittoa eta bormigoia edo papera. Nabarmentzekoak dira batik bat biri edo natur guneetarako sortu izan dituen obra monumentalak. Bizialdian bainbat eta bainbat sari jaso izan ditu eta haren lanak munduko museo nagusienetan daude ikusgai.*




9.- EDUARDO CHILLIDA. —**ABESTI GOGORRA V, THE MUSEUM OF FINE ARTS. HOUSTON (USA).**

*Chillidak abesti biburtzen du harria, abesti garratz eta gogor alegia. Octavio Paz-ek dioen bezala, "...baize bat zubaitz artean, forma eta masen binno bat. Abestia aire-eraikina da, lurretik begal soinudun edo musika ibilgetu gisa sortzen dena. Espazio mutuak begiekin entzuten dugun abestia abesten du. Harria isiltasunez, espazioaren isiltasun zabalez egindako eskultura biburtu da".*




10.- EDUARDO CHILLIDA. –GURE AITAREN ETXEA. GERNIKA (1987).

*Chillidak berak zioenez, monumentuaren formak gure asaben etxearen ikur izan nahi du, eta abside bat bezalakoa da bere hormetan butsune bat zabalik daukalarik, leiho horretatik Zubaitza ikusteko; horregatik "Gure Aitaren Etxea". Etxe erdian, estela bat, altzairuzko pieza indartsu bat, askatasunerako eta tolerantziarako proposamen bat legez. Estelaren sinboloa bakea eta bizitza da, bortxe, gure aitaren etxearen bihotzean, gure berriaren bihotzean.*




11.- EDUARDO CHILLIDA. –HAIZEAREN ORRAZIA. DONOSTIA (1976).

*Haizearen orrazia eskultura, eskulturari ekiteko era guztiz modernoa da, aditu askoren ustetan, bai diziplina anitzeko izaera bai Donostiako biri-sarean integratua dagoelako. Burdinazko biru eskulturak biburrikatu eta arrokari txertatu zaizkio. Paisaiaren baitan hartzen dute zentzu osoa; areago, itsasoa plataformen azpitik sar dadin abalbidetzen du, bain zuzen zazpi isurbide zulatuz, baietatik itsasoaren marruma ez ezik, baren aparra ere, balearen zorrotada bailitzan, zipriztinka irten dadin.*




12.- **EDUARDO CHILLIDA. –HAIZEAREN ORRAZIA. DONOSTIA (1976).**

1977an oparitu zion Eduardo Txillidak bere herriari, Donostiari, biriko sinbolo bilakatu den eskultura ospetsua. Hiru elementu funtsezko: ura, eguratsa eta lurra, biru eskultura, bakoitzak biru beso, biru baitzetan biru loturaz itsatsiak espazioa mugatuz eta hertsiz. Artea, arkitektura eta ingeniartzita elkartuz sortu zen lan bau. Chillida berak zioenez, artistarena izatetik biritarrena izatera pasatu da gune zoragarri bau.



13.- **NESTOR BASTERRETXEA (BERMEO, 1924). –OLATUA (XEH) (2006). BERMEO**


*Luzea da oso Nestor Basterretxearen biografia personala eta artistikoa, gertaerez eta gorabeherez betea. Equipo 57 taldearen fundatzaileetako bat, Oteiza eta Chillidarekin batera, GAUR taldeko kidea. Basterretxeak elkartzen ditu bizkuntza artistiko berritzaileak eta Euskal Herriko nortasuna eta arima. Nabarmentzekoak dira baren lan hauek: 'Hilarriak' eta 'Euskal Kosmogonia' eskultura sailak eta Arantzazuko basilikako kriptan dauden pinturak. Zinerako sortu izan dituen lanak ('Pelotari', "Ama Lur"... ) ere oso interesgarriak izan dira .*



14.- RICARDO UGARTE (PASAI SAN PEDRO, 1942). –IKER-KONPOSAKETA.


*Eskultorea, pintorea, grabatugilea, argazkilaria eta idazlea, eta Eskulturako Euskal Eskolako kidea. “Bere lanak beti du balako arkitektura kutsua, bai materialengatik (burdina-modulu industrializatua) bai teknikarengatik (soldadura elektrikoa). “Bere obren egiturak arimaren egoerak ere badira, baija euskal arimaren adierazpen erradikala ere, goren balioak nonabi agertzen direnez inoiz baino biluziago, behar bada.” (Antonio Viglione). Artista bonek nazioarteko sari ugari jaso izan ditu.*






15.- JUAN GORRITI (ODERITZ, 1942). –IKER-KONPOSAKETA.

*Gorriti ume-gizona ezobiko artista da. Bizi garen gizarte honetako aurrerapenaren eta teknologiaren aurrean txundituta, Juan Gorritik kontra egiten dio. Ezinegonean, gizakiak aspaldi batean galdutako elementuak biltzeko premia du: baserriak eta mitologiako kondaira zabarrak, misteriozko animalia gorriak (zezengorria, izaki antropomorfoa, galtzagorri deabrua, e.a.). “Laugarren dimentsioa bibotzean dago, denboraren eta mañasunaren artean”. Oteizak, bere “maisuk”, hauxe esan zion egun batean: “Ateak jartzen d;zk;ezu zuk eskulturei”.*



16.- **AGUSTIN IBARROLA (BASAURI, 1930).**

*Pintura ikasketak Madrilen basi zituen. 1950ean Jorge Oteiza ezagutu zuen, eta hark jarri zuen konstruktibismoarekin barremanetan. 60ko urteetan politika eta gizarte gaietan murgildu zen. Pinturaren arloan egindako lana bere ideologia politikoaren garapen plastikoa da, pintura sozialaren barruan sar daitekeena. Nabarmentzekoak dira formatu handiko bere eskulturak, naturan egin izan dituen interbentzioak (“Omako basoa”) eta terrorismoaren aurkako mugimendu sozial batzuetan izan duen partaidetza (“Basta ya”, “Ermuko Foroa”,...).*




17.- **REMIGIO MENDIBURU (HONDARRIABIA, 1931 - BARTZELONA, 1990).** –**IKER-KONPOSAKETA.**

*Remigio Mendiburu "guztjotatjē eskultorerik indartsuena" zela esan zuen Oteizak. 60ko urteetako euskal abangoardiako GAUR taldeko kide izan zen bera. Eskultore honen lanaren eboluzioa bonelakoa izan da: burdina lantzetik zura lantzera, "besarkatutako zubaitzen, euren sustraie; begira dauden zubaitzen... esperjenzia totemikoa" biziz; gero, zementua eta zura bat egitearen esperimentu aitzindariari ekinez, alabastro, pintura, tinta, poliester edo beira zuntzaren bideetatik jarraitzeraino.*




18.- ANTONIO OTEIZA. (DONOSTIAN 1926). –ABARKETAGILEAK (2002)

*Jorge Oteizaren anaia txikia Hego Ameriketako bainbat herrialdetan kaputxino misiolari, abentura-bidaiari Amazona osoan, bere abentura bidaien liburu idazle. Beti artea erabili du Berri Ona zabaltzeko. Eskulturagile gisa serie luzeak egin ditu bala brontzean nola zeramikan. Arte sakratua da honen eremurik jorratuena, baina kirolak, kulturak, tradizioak eta pertsonaiek ere hartzen dute lekua haren artean. Gaur egun arte sakratuan ari da indar egiten, gizarte kristauarentzat erlijio irudi berritu baten alde.*




19.- **ANTTON MENDIZABAL (DONOSTIA, 1945).** –MUSIKA. **IKER-KONPOSAKETA.**

*Antton Mendizabal zuraren eskulangintzan basi zen 70eko urteetan. 80ko eta 90eko urteetan, ordurako eskultore, bi gai nagusitan oinarritu zuen bere lana: euskal mitologia eta pilota-mundua. Azkoitiko Oteiza frontoiak diseinatu zituenean eman zuen bukatutzat pilota-munduaren gaiari lotutako ibilbidea. Azken urteak Oliver Messiaen konpositorearen obrak eskulturetan gauzatzen eman izan ditu, zur, beira, alabastro eta beste material batzuetan irudikatutako “partitura eskultoriko” biburtuz.*




**20.- ANTON MENDIZABAL.- PILOTA.1990-2002. -IKER-KONPOSAKETA.**

*Antton Mendizabal txikitatik dago pilotari lotuta. Jada orduan frontoiaren espazio "izugarri bandi" bark zirrara berezia sortzen zion. Euskal kulturaren atal bat den kirol batean jarri zuen bere begirada zizelkariak eta begirada borretatik sortu zen Pilotaz proiektua, hau da, biru ataletan banatutako "Euskal-Pilota jokoaren inguruan eginiko eskultura-saiakera estatiko-dinamikoa".*




21.- JOSE ALBERDI “BURRUNTZALI” (AZKOITIA, 1922 DENIA, 2008). –IKER-KONPOSAKETA.

*13 urte zituela, Donostian hasi zen artea ikasten. 1937an, “gerrako ume” zela Ingalaterran errefuxiatuta, eskulturaren munduan sartu abal izan zen berezkoa zuen talentu handiari esker. Arte akademietako ikasle eta irakasle izan zen, eta bainbeste miresten zuen Henri Moore zuen miresle. Tradiziozko material guztiak landu zituen. Arrakasta handiko artista, Ingalaterra eta Espainia osoan kokatuta dauden tamaina handiko bere eskulturengatik. Arte Ederretako Britainia Handiko Errege Akademiako kide bartutako artista atzerritar bakarra izan zen.*




22.- JOXE ALBERDI "BURRUNTZALI". –PILOTARIARI OMENALDIA. (1990) DONOSTIA  
*Alberdiren estetika euskal sentsibilitateari egokitzea bat-batekoa izan zen, bere ikasketa, bizitza eta egintza gebientsuenak Ingalaterran egin arren. Hartaz esan da "bere herritik urrundu zela bere herria bobeto amesteko". Bere jatorri eta sormen artistikoaren arteko lotura nabarmena izan zen. Horren eredu dira euskal tematika alorrean egindako hainbat eskultura: «Pelotari», «Baserritarra», «Aitor» eta abar.*






23.- JOSE RAMON ANDA (BAKAIKU, 1949). –IKER-KONPOSAKETA.

*Anda ez da bakarrik zura maite duen poeta, edo ofizioz artista. Materialetik nabi duena erauzten du soilik. Bere prozesua eskuzkoa, tailerrean egina, enpirikoa da funtsean. Eta hori nabaria da haren lanean. Haren eskultura sailen artean nabarmentzekoak dira: Korapiloak, Oboideak eta Zutabeak. Ondoren datoz sortu izan dituen eskultura- altzariak. Dituen askotariko ikuspegiak, figurazioa, abstrakzioa, eskultura, altzariak, tailerra, galdaketa eta arkitektura tartean direla, era askotako obra/adierazpideak sortzera eraman dute*




24.- **XEBAS LARRAÑAGA (AZKOITIA, 1962).** –IKER-KONPOSAKETA.

*Xebasek, prestakuntza klasiko osatua jaso izan duenez, ondo menderatzen ditu taila, eskultura eta monumentuak (Peñafloridako Kondea, edo "Azkoitiko Zalduntxoak", Atano III.a, Jesus M. Leizaola, San Ignazio Loiolakoa,...). Bere garaiari dagokionez, ordea, beste jarrera batekin adierazteko premiak bultzatuta, lan abangoardistagoetan murgilduta dago orain. Hala, Carrara marmolean zizelatutako "Amatasuna" dugu borren erakusgarri, baita "sustraiak", sagarrondo zurean egina, "Ekaitza", gaztainondo zurean, eta beste hainbeste.*




25.- JOSÉ ZUGASTL EIBAR, 1952. –IKER-KONPOSAKETA.

*Margolari, grabatzaile eta eskultore, Madrilera Escuela de San Fernandon egin zituen bere ikasketak. Xumetasun bilaketak bere marra lehenengo irudi antropomorfikoak erraztera eraman zuen, egitura arkitektonikoetara jotzen zuten moduloetara. Halako batean Oteiza eta Chillidarekin topo egin zuen eta kontzeptualismora jo zuen. Haren lanak eremu publikora iritsi zirenean tamaina handitu eta ingurunean egokitu, basi, sakabanatu eta bere isuria altxatzea eta hondoratzea lortu zuen. Orain gizakia bere diseinuetan osatzen basi da.*




26.- VICENTE LARREA (BILBAO, 1934). –IKER-KONPOSAKETA.

*Zizelkari bilbotarra familia famatuko oinordekoa da; erroetan eta bezkuntzan aurkitu ditu, seguruenez, sentikortasun handia eta erreferentzia klasikoenganako atxikimendua. Vicente Larrearen obra ikaragarriak, abstraktuak nabiz figuratiboak izan, organikoak nabiz barrokoak, harritu egiten dute eta denak gogobetetzen ditu, liluraz eta hausnarketaz. Artistak ezin finago lantzen du metala, tolestuz eta bebartuz; hala, kiribilak, okerruneak, hausturak, itzalak eta argiak harmonia poetikoan jartzen dira.*



27.- JOSETXO SANTOS. IRUÑEA 1947. –OREKA. POLIKLINIKA, DONOSTIA

*Jose txo Santosek bere eskultore jarduera Arte Plastiko eta Teknologiako irakaskuntzarekin elkartzen ditu. Zenbait liburu eta testuren idazlea ere bada. Egile boni bere burua argi eta formen artisa u eta arte eraikitzailetzat aurkezten du. Bere lanetan poesia bilatzen du, lanerako darabiltzan materialei –alegia zurari, metalari eta beirari- seriotasun eta gogortasuna kenduz. Eskultura bakoitzean obra, espazioa eta ikusleen artean harreman berriak aurkitzeko eta elkarrizketa berriak sortzeko aukera bilatzen du.*



## 28. BEGOÑA.

*Begoña joria da oso sentimenduetan, bizipenetan eta ukituetan. Begoñak bizitza maite du, formak, espazioak, koloreak maite ditu. Begoñak inoiz ez ditu bere lanak jendaurrean erakutsi, inoiz ez da egunkarietako tituluetan agertu, inoiz ez zaio moldeko letretan artista deitu. Begoña, ordea, artista bat da... beste asko bezala. Eta Begoñarekin batera egin nahi diet omenaldi artista anonimo horiei guztiei, ia batera ezagunak ez diren horiei, nortasun artistiko izugarri handia, artea sortzeko eta bizitzeko hainbesteko gaitasuna duten horiei.*